

KONBINATORIA TEST

1.- Demagun seinaleztapen 6 bandera ditugula, bi gorri, bi berde eta bi urdin, hain zuzen ere. Zenbat seinale desberdin egin daitezke bi banderekin, aldi berean?

2.- Zenbat futboleko kiniela desberdin egin daitezke?

a) $14 \cdot 13 \cdot 12$

b) 14^3

c) 3^{14}

3.- 52 pertsonak, 60 pertsona onar ditzakeen autobus bat (gidaria barne) alokatzen dute. Zenbat modu desberdinetan koka daitezke 52 pertsona, gidaria, horietako 52 pertsonetariko bat baldin bada?

a) $A_{60,52}$

b) $K_{60,51}$

c) $A_{59,51}$

4.- Zenbat bi zifra desberdinetako zenbaki desberdin eraiki daitezke 5, 7 eta 9 digituak erabiliz?

5.- Zenbat biderketa desberdin egin daitezke 3 zenbakitik 17 zenbaki bitartera dauden zenbaki arruntekin, horiek barne, 4-naka biderkatuz eta bat ere errepika gabe?

6.- 1-etik 9 bitarteko zifreekin (biak barne), zenbat 3 zifretako zenbaki desberdin osa daitezke?

7.- Zenbat modu desberdinetan jesar daitezke 7 pertsona banku batetan?

8.- 3 txanponen jaurtiketan (berdinak eta aldi berean), zenbat emaitza posible ditugu?

9.- Zenbat 5 zifra desberdinetako zenbaki osa daitezke 1, 2, 3, 4 eta 5 digituekin?

10.- Zenbat zenbaki 6 zifratakoak osa daitezke, baldin eta horietan beti badago bat 1, bi 2 eta hiru 3?

11.- Gaztelako alfabetoarekin (25 hizki), zenbat 6 hizki desberdinetako hitz (zentzua dutenak edo zentzu gabekoak) lor daitezke?

a) $EA_{25,6}$

b) $K_{25,6}$

c) $A_{25,6}$

Eta honetariko, zenbat hasten dira bokal batengatik?

a) $A_{24,5}$

b) $K_{25,5}$

c) $5 \cdot A_{24,5}$

12.- Koadernaketa erreferentzia izanik, zenbat modu desberdinetan koka daitezke 30 liburu, honetariko 10 larruan egonik, 9 oihalean, 6 kartoian eta 5 paper-azalez?

a) $A_{30,10} \cdot A_{20,9} \cdot A_{11,6} \cdot A_{5,5}$

b) $A_{30,4}$

c) $EP_{30}^{10,9,6,5}$

13.- Zenbat apustu posible egin daitezke Primitiba loterian, laukian agertzen diren 49 zenbakien artean 6 zenbaki markatuz?

14.- Lan iragarki bati erantzunez, administratibo hiru lanpostu betetzeko 12 pertsona aurkezten dira. Zenbat pertsonazko multzo desberdin aukera daitezke?

15.- Zenbat hiruki desberdin osa daitezke planuan, planuko 8 punturekin, baldin eta horietariko hiru puntu ez badaude inoiz lerro berdinean?

16.- Zenbat multzo hiru hizkiekin osa daitezke a, b, c, d, e, f, g hizkiekin, multzo bakoitzean berdina den hizki bat, baten baino gehiagotan ager badaiteke?